

«HAU DA ENE MINA, ESAN NAHI ETA ESAN EZINA»

Azken boladan, aspaldian ez bezala idatzi da gaixotasun larriek eragiten dituzten minaz, sufrimenduz, beldurraz, aldarteaz eta abarrez. Lehenagotik ere ezagunak genituen Joxe Aranzabal, Pello Zubiria, Joan Mari Irigoien eta beste batzuen gaixotasunen gorabeherak, gogoetak... —eurek berek kontatuta—, baina Anjel Lertxundiren «Zu» liburu mamitsuak izan duen oihartzunak eragingo zuen, ziurrenik, gaixotasuna nolabait ardatz duten idaztzen gorakada horretan.

Joan den abuztuan, esaterako, artikulua-sorta bikaina argitaratu zuen Berriak «[Azken hitzaren jabe](#)» izenburupean, eta horien ondo-ondotik etorri zen egunkari berean Anjel Lertxundi idazleari eta Felix Zubia Donostialdea ESiko medikuari egindako elkarrizketa: «[Oinazeaz: esan ezin denik gabe](#)». Hil honetan bertan, bestalde, Sautrelako aurkezle dugun Hasier Etxeberria idazlearen gaixotasunaren berri izan dugu Etxeberriak berak idatzitako artikulua zirrargarrian: «[Minbizia dut](#)».

Orain, udazkenaren atarian, «Bizitzaren labirintoak» izeneko hitzaldia iragarri digu Bidasoko ES lak urriaren 26rako. Izan ere, Anjel Lertxundi idazlea eta Carmen Valois Donostialdea ESiko gizarte-langilea arituko dira Hondarribian, heriotza, gaixotasuna, mina edo sufrimendua hizpide hartuta.



Ekitaldia ESI bereko Zainketa Aringarrietako Unitateak, Zuzendaritzak eta Euskara atalak antolatu dute prestakuntzarako planaren barruan. Azken urteotan, Zainketa Aringarrietako Unitateak hainbat ekintza bideratu ditu behar palatiiboak dituzten pazienteen arreta integraturako plana gizarteratzeko eta zabaltzeko. Joan den maiatzean, esaterako, hirugarren jardunaldia egin zuten, [Zainketa planifikatuz](#) izenburuarekin, eta urriaren 26rako iragarri digutena jardunaldi horren osagarritzat har dezakegu, zeina euskaraz izango baita aurrenekoz. Berri ona, inondik ere.

HIRITARRON HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK JASOTZEN DITU PERTSONOK EAE-KO OSASUN-SISTEMAN DITUGUN ESCUBIDEEN ZERRENDA BERRITUAK

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak iaz onartu zuen bertoko osasun-sisteman pertsonak dituzten eskubide eta betebeharreri buruzko [Adierazpena](#). Dekretu horretan lehen aldiz azaltzen da pertsonen hizkuntza-eskubideak bermatuak izateko eskubidea, antolaketarekin eta kudeaketarekin lotutako eskubideen artean azaldu ere.

Aldi berean, indargabetuta geratu zen aurreko dekretua, 1989ko uztailaren 18koa, Osakidetzako gaixoen eta erabiltzaileen Eskubideen eta Betebeharren Gutuna onartzen zuena, zeinak ez baitzuen osasun-zerbitzuen erabiltzaileen hizkuntza-eskubideen aipamenik ere egiten. Oraingoan, ordea, kontuan hartu dira geroztikako lege-arauetan ezarritakoa, hala [Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko Legean](#) eta [Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei buruzko Dekretuan](#), nola Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzuaren euskararen erabilera normalizatzeko Dekretuan araututakoa.

Eskubide eta betebeharren araudia-
ren laburpena ikusteko klik egin [hemen](#).

AURTEN ERE HAINBAT ERAKUNDEK EMAN DUTE IZENA BIKAIN ZIURTAGIRIRA AURKEZTEKO

Jakina denez, Osakidetzaren II. Euskara Planak zehaztua du plangintza-aldi honetan zehar (2013-2019) zerbitzu-erakunde guztiek zilarrezko Bikain ziurtagiria

eskuratzea, eta, agindutako helburu hori jarraituz, dagoeneko erakunde hauek eman dute izena tarteko ziurtapen hori lortzeko: Debabarreneko ES lak, Deba-

goieneko ES lak, Donostialdea ES lak, Goierri-Urola Garaiko ES lak, Bidasoko ES lak, Barrualde-Galdakao ES lak, Arabako ES lak eta Santa Marina Ospitaleak.



Maria Cubo erizainak egunero erabiltzen du tableta lanerako.

Pazientearen informazio osoa, eskura

Hiru aplikazioen bidez, erizainen lana erraztu eta arindu egin da; erabiltzaileek eskumuturrekoan dituzten kodeak eskaneatuta jarraipen ziurragoa eta zehatzagoa egiten zaie.

Erizainen eguneroko lana erraztu-ko duten hiru aplikazio jarri ditu abian Osakidetzak. Pazientearen informazio osoa eskura izango dute une oro, eskuetan erabiliko dituzten tabletetan. Galdakao-Usansolo Ospitalean hasi berriak dira tabletak baliatuz lanean, eta nola lan egiten duten ikastera joan da *Osatu berri* bertara. Maria Cubo Cossio ospitalizazioko hirugarren solairuko gainbegiralearekin hitz egin du.

Aurrerapen nabarmena egin dutela iruditzen zaio Cubo andreari. «Segurtasunean irabazi dugu bereziki, orain

huts egiteko arriskua oso txikia da». Osabide datu-baseko informazio osora sartu-irtena egin dezakete hiru aplikazioen bidez, eta, ondorioz, pazientearen historia kliniko osoaren berri dute klik bakarrean. «Orain arte, koaderno eskuan erabiltzen genuen goizeko eta gaueko tentsio-datuak zein bestelakok apuntatzeko, eta beti egon zitekeen —horrek ez du esan nahi hala gertatzen zenik— zenbakiak nahasteko aukera».

Botikak emateko lana ere erraztu dute aplikazioek. Horien bidez, dago-kion botika emango zaio paziente bakoitzari, eta, hor ere nahasteko aukera txikia izango da. «Medikamentua, era horretara, behar den orduan eta dago-kionari eman zaiola ziurtatzen dugu aplikazioarekin. Larrialdiren bat gertatuz gero, erizainek edo medikuek unean bertan ikusi ahal izango dute zer hartu duen pazienteak, eta erantzuna errazagoa izango da». Lana erraztea eta azkartzea, beraz, segurtasuna indartzea bezain garrantzitsuak bihurtu dira.

Konstante bitalak neurtzen dituen aplikazioaren bidez, erizainek une oro dute pazienteen berri. Orain arte, langile bakoitzak eskuz idazten zituen zenbakiak koadernoan, eta, ondoren, ordenagailura pasatzen zituzten datuak, banaka-banaka. Neurri batean «arriskutsua» zen jardun hura, Cuboren ustez, zenbakiz nahasteko aukera egon bazegoelako. Orain, eskumuturreko kodea eskaneatzen dute, konstante bitalak hartzen dituzten bitartean, eta gero, zenbakiak sartzen dituzte. Hori guztia pazientearen aurrean egiten dute. «Ia ezinezkoa da pazientez nahastea, bakoitzak bere kodea duelako».

Laborategiarekin lotura duen aplikazioa da, bigarrena. Pazientearen eskumuturreko kodea eta kontsulta-orriko kodea alderatzen dituzte; beraz, nahasketak saihesten dira berriz ere. Berdin jokatzen dute odol-laginekin. Ko-

Erizainek errazago ez ezik, seguruago egingo dute lan aurrerantzean, pazientearen kontrola zehatza baita

Hasi berri dira aplikazioekin lanean, baina balorazio positiboa egiten dute erizainek

deen bidez, ia ezinezkoa da hutsegite-rik izatea.

Botikak banatzeko lanean erabiltzen dute hirugarren aplikazioa. Kasu horretan, aldatu egin dute lan egiteko modua. Eskumuturrekoan jartzen duena irakurri, eta korridorean daukaten orgatik hartzen dituzte botikak. Ondoren, erizainak botika eman diola sinatu egiten du pazientearen aurrean.

Erizainak gustura

Oro har, langileak «izugarri pozik» daude oraingo lan-funtzionamenduari. Erraz ohitu dira. Aplikazioak behar bezala funtziona dezan, Interneten

estaldura aldatu egin behar izan dute ospitalean. «Wifia erabiltzen dugu, baina eraikineko leku batzuetara seinalea ongi iristen ez denez, handitu egin dugu estaldura». Apenas izan dute arazorik. «Arazo tekniko txikiak izan ditugu». Erizain bakoitzak bere tableta dauka lanerako, erabiltzaile-izen batekin eta pasahitz batekin. Horrela konektatzen dira Osabiderek. «Datu-base erraldoia da hura. Aplikazioak programa txikiak dira, baina datuak joan-etorrian ibiltzen dira. Zubi txiki batzuk bezala dira, arinak baina beharrezkoak».

Eskumuturrekoak hiru kode dauzka. Barra-kodea, QR kodea eta Aztec kodea. Aztec hori sortu berria da, eta Cubok dio aplikazioek «bikain» irakurtzen dituztela hiru kodeak. Gailuak «normalak» dira, inongo berezitasunik gabeak. Hori bai, bateria ona daukaten etxeok aukeratu zituzten, ordu asko aritzen baitira lanean. Tamainari dago-kionez, erizaintzako uniformearen poltsikoan sartzeko modukoak dira. Leku guztietara eramaten dute, beraz, tableta.

Aplikazio gehiago

Aplikazioak lanerako erabiltzeko ohitura hasi besterik ez da egin. Cubok aurreratu duenez, beste programa bat lantzen ari da Osakidetza. Larrialdietan erabili nahi dute. «Aplikazio horretan, pazienteak ospitalean izan duen bilakaeraren inguruko laburpena sartu nahi dugu; hala, larrialdietan, aplikazio hartatik bertatik hartuko genuke informazioa, ordenagailuetara jo beharrik izan gabe».

Aplikazioak garatu dituen lan-taldea da Maria, eta beste aplikazio bat ere lantzen ari dira: zauri kronikoen bilakaera argazkien bidez jasoko duen aplikazioa sortu nahi dute; hartara, zehatzago jakingo dute zer itxura izan duen zauriak momentu jakin batean. Helburua argia da: erabiltzaileekiko arreta ziurragoa eta zehatzagoa izatea.

gramatika

MASAIA ALA MASAJEA?

Oro har, beste hizkuntza batetik hartutako hitzetan, hau da, maileguetan, gorde egiten da –aje atzikia. Masajea da, beraz, izenburuko galderaren erantzuna.

Hona *Hiztegi batua* dakartzan tankera bereko beste hitz batzuk: **arbitraje** (zuzenbidean), **blindaje**, **brikolaje**, **ekipaje**, **enbalaje**, **engranaje**, **erreportaje**, **fuselaje**, **garaje**, **kabotaje**, **kamuflaje**, **makillaje**, **mestizaje**, **paraje**, **pelegrinaje**, **potaje**, **portzentaje**, **sabotaje**, **tatuaje**...

Hala ere, *Hiztegi batua*n onartzen dira, salbuespen modura, –aia atzikia daukaten hitz bakan batzuk: **bidai**, **kuraia**, **lengoia**, **paisaia**, **pertsonaia**, **xantaia**...

Horrenbestez, baztertzekoak dira denbora batean –aia atzikiarekin erabili izan diren hainbat hitz, esaterako: **aprendizaia**, **ekipaia**, **fuselaia**, **makilaia**, **tatuaia** eta, jakina, **masaia**.

Bestalde, badira –ajez bukatzen diren beste hitz asko *Hiztegi batua*n ez baina han-hemengo hiztegietan-eta ageri direnak: **balotaje**, **bendaje**, **balizaje**, **errodaje** (industrian: motorren erro-dajea, esaterako), **hidromasaje**, **kilometraje**, **klibaje**, **kronometraje**, **libertinaje**, **oktanaje**, **patinaje**, **pilotaje** (eraikuntzan: pilotaje bidezko zimendatzea), **zerklaje**, **kornaje**, **kuretaje**...

OI, PARTITIBO! ZER HINTZEN ETA NON HAGO?

Azken boladan, gero eta gutxiagotan erabiltzen da partitiboa: «**Ez dira medikuak etorri**» esaten da, «**Ez da medikurik etorri**» beharrean (horixe adierazi nahi bada, jakina); «**Ez dauzkat esperantzak**», «**Ez daukat esperantzarik**» beharrean; «**Ba al daude erretzeko gelak ospitale honetan?**», eta ez «**Ba al dago erretzeko gelarik ospitale honetan?**».

Pello Zabaletaren «Oraingo Errenteriari» bertso zahar hura moldatuta adieraz genezake partitiboak duen egoera tamalgarria, zilegi balekigu:

Agur eta ohore
partitiboari,
kasik esan liteke
ez dela ageri;
urtetikan urtera
zapuzten da ari,
ordutikan honera
galdua dirudi.

Eta hori gutxi balitz bezala, ageri denean, askotan, gaizki gainera:

- artikularekin: «Ez dut **lanarik** egin», «Baduzu **planarik** biharko?», «Ez dut egin horren **aipamenarik**»...; **lanik**, **planik**, **aipamenik**, esan ordez.
- partitiboari dagokion komunztadura pluralean eginez (gaztelaniaren eraginez, du-darik ez): «Ez **dituzte** gaixok sendatzeko behar diren tresnarik», «Ez **dituzu** mediku euskaldunik aurkituko»; «Ez **dute**, ez **duzu**...» esan beharrean.

Beraz, gogoan hartu partitiboa batez ere noiz eta nola erabiltzen den: ezezkoetan, galderetan eta baldintzazkoetan, partitiboa izen biluziari erantsiz eta aditz-komunztadura beti singulurrean eginez.

[arriketak hemen](#)

agenda

MINARI NOLA HELDU JAKITEKO
I. JARDUNALDIA OSAKIDETZAN:
«MINA ARINTZEA, GIZAKION
ESKUBIDEA».

Urriaren 21ean, Gasteizen, Europa Bil-tzar-jauregian.

[egitaraua](#)

AHO-HORTZEN OSASUNAREN
II. JARDUNALDIAK

Urriaren 21ean, Mendaroko ospita-leko areto nagusian

[egitaraua](#)

PNEUMOLOGIAKO II. JARDUNALDIA
LEHEN MAILAKO ARRETAREKIN

Urriaren 22an, Gasteizen, Ciudad de Vitoria hotolean.

[egitaraua](#)

«BIZITZAREN LABIRINTOAK:
HERIOTZA, GAIXOTASUNA, MINA,
SUFRIMENDUA... LETREN ISPILUAN»

Anjel Lertxundi idazlearen eta Carmen Valois Donostialdea ESiko gizarte-langilearen hitzaldia.

Urriaren 26an, Hondarribian,
13:30ean, Itsas Etxea auditoriumean.

Antolatzailea: Bidasoko ESiko Zainketa Aringarrietako Unitatea

[izen-ematea](#)

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK
EGIAZTATZEKO 2016KO II. DEIALDIKO
PROBAK

Eskabideak aurkezteko epea irailaren 24an bukatu da. Aurreikusita dagoenez, idatzizko probak azaroaren 5ean egingo dira, Barakaldon (BEC), eta ahozkoak abenduaren erdi aldean.

[informazioa](#)

EAEKO ARRETA INTEGRATUKO
JARDUNBIDE EGOKIEN
III. JARDUNALDIAK: «INTEGRAZIOKO
ESPERIENTZIAK PERTSONENGANDIK
ETA PERTSONENTZAT».

Azaroaren 16an, Donostian, Mira-mongo Parke Teknologikoan.

[egitaraua](#)

